

4

Nork du liburua?

nor-nork orain: **dut, duzu...** • ba-
• -ik • gorputza • *Zer nahi duzu?*

El verbo **izan** lo hemos estudiado como copulativo, con el significado **ser** o **estar**. Pero **izan** tiene, además, una función transitiva. Como verbo transitivo significa **tener**. Más tarde lo estudiaremos como auxiliar.

El presente de **izan** transitivo es así:

NIK	DUT	<i>yo tengo</i>
HIK	DUK/DUN*	<i>tú tienes</i>
HARK	DU	<i>él/ella tiene</i>
GUK	DUGU	<i>nosotros/as tenemos</i>
ZUK	DUZU	<i>tú tienes, usted tiene</i>
ZUEK	DUZUE	<i>vosotros/as tenéis</i>
HAIEK	DUTE	<i>ellos/ellas tienen</i>

* El tratamiento de **hi** distingue el género del interlocutor: **duk** se emplea con un chico, **dun** con una chica:

Zer duk, Mikel? *¿Qué tienes, Mikel?*
Zer dun, Miren? *¿Qué tienes, Miren?*

No lo estudiaremos a este nivel.

EL SUJETO "NORK"

El sujeto de los verbos transitivos lleva siempre el morfema **-k**. Es el caso **ergativo**. Esto es muy importante y debes asimilarlo bien.

En euskera tenemos, por lo tanto, dos clases de sujeto: **NOR** para los verbos intransitivos y **NORK** para los transitivos. Compara los siguientes ejemplos:

Sujeto NOR

Ni gizona naiz.
Zu emakumea zara.
Gu zaharrak gara.

Sujeto NORK

Nik liburua dut.
Zuk autoa duzu.
Guk etxea dugu.

LOS DEMOSTRATIVOS

El caso ergativo de los demostrativos es como sigue:

NOR		NORK
hau	>	honek
hori	>	horrek
hura	>	hark

Hau neska **da**. **Honek** liburua **du**.
Hori mutila **da**. **Horrek** etxea **du**.
Hura mutila **da**. **Hark** dirua **du**.

Los demostrativos plurales coinciden en ambos casos (NOR y NORK):

hauek, horiek, haiek

NOR DA?



-Nor da hau?
-Hau ldoia da.

NORK DU?



-Nork du autoa?
-Idoia du autoa.

LOS NOMBRES

NOMBRES PROPIOS

Los nombres propios terminados en consonante intercalan una **e** antes de la **-k**:

Loli: Lolik egunkaria du.

pero

Izaskun: Izaskunek liburua du.

Fernando: Fernandok etxea du.

Aitor: Aitorrek autoa du.

NOMBRES COMUNES

1. Los nombres comunes en singular toman la **k** después del determinante **a**, por lo que la terminación es **ak**:

Gizonak papera du.

El hombre tiene un papel.

Emakumeak liburua du.

La mujer tiene un libro.

2. El ergativo plural lleva el morfema **-ek**. Aunque en muchas zonas tal distinción se ha perdido, debemos mantenerla en la lengua escrita.

Gizonek papera dute.

Los hombres tienen un papel.

Emakumeek liburua dute.

Las mujeres tienen un libro.

3. Si la palabra termina en **-a**, ésta desaparece: **-a + -ek = -ek**.

Neskak poltsa du.


La chica tiene una bolsa.

Neskek poltsa dute.

Las chicas tienen una bolsa.




Olatzek giltza du.



Pinotxok sudur luzea du.



Josebak ile gutxi du.



Imanolek indar handia du.




-Nork du alaba?
-Aitak du alaba.




-Nork du ogia?
-Amak du ogia.



-Zer du itsasoak?
-Ura du itsasoak.



-Zer du lurrak?
-Belarra du lurrak.



-Zer du andreak?
-Telebista du andreak.



-Zer dute aberatsek?
-Aberatsek diru asko dute.



-Eta pobreek?
-Pobreek ez dute dirurik.



-Nork du papera?
-Neskek dute papera.




-Ikasleek jai dute?
-Bai, ikasleek jai dute.



-Irakasleek ere jai dute?
-Ez, irakasleek ez dute jairik; irakasleek bilera dute.

Haur honek aurpegi garbia du, baina beste horrek oso zikina du.



–Zeinek du egunkaria?
–Hark du egunkaria.

–Zeinek du irratia?
–Honek du irratia.

haur: niño, -a • aurpegi: cara • garbi: limpio • zikin: sucio • egunkari: periódico
• irratia: radio

ARIKETAK



Responde a las siguientes preguntas.



1. Zer du Pinotxok?
2. Nork du sudur luzea?
3. Nolako sudurra du Pinotxok?



19. Zenbat diru dute aberatsek?



4. Josebak ile asko du?
5. Nork du ile gutxi?



20. Pobreek ba al dute dirurik?



6. Zer du Imanolek?
7. Nork du indar handia?
8. Nolako indarra du Imanolek?



21. Zer dute neskek?
22. Liburua dute neskek?



9. Zer du andreak?
10. Nork du telebista?



23. Zer dute ikasleek?
24. Nork du jai?



11. Zer du aitak?
12. Amak al du alaba?
13. Aitak semea du?



25. Zeinek du aurpegi zikina?
(neska hau / mutil hori)
26. Nolako aurpegia du neska honek?



14. Zer du amak?
15. Nork du ogia?



27. Zer du neska hark?
28. Egunkaria mutil honek du?



16. Ur gutxi al du itsasoak?
17. Nolakoa da itsasoa?
18. Zerk du ura?

29. Zer du mutil honek?
30. Mutil honek telebista du?



Pon al sujeto la terminación (**nor** o **nork**) que convenga.

1. Gizon... txikia da; gizon... egunkaria du.
2. Emakume... haurra du; emakume... oso gaztea da.
3. Itsaso... handia da; itsaso... ur asko du.
4. Ni... gizona naiz; ni... etxe txikia dut.
5. Zu... aurpegi garbia duzu; zu... neska zara.
6. Gu... bilera dugu; gu... lagunak gara.
7. Kale... luzeak dira; kale... ez dute argirik.
8. Mendi... handiak dira; mendi... belarra dute.
9. Gazte... indarra dute; gazte... langileak dira.
10. Idoia... irratia du; Idoia... anaia txikia du.
11. Mikel... ona da; Mikel... liburua du.



Emplea el demostrativo que convenga al sujeto.

1. HAU/HONEK Ardo txarra da; ardo ura du.
2. HORI/HORREK Neska aurpegi polita du; neska gaztea da.
3. HURA/HARK Haur txikia da; haur papera du.



Itzulpena.

1. El chico tiene un libro.
2. La mujer tiene un periódico.
3. Idoia tiene un hijo pequeño.
4. La fuente no tiene agua.
5. Éste tiene un pan grande.
6. Ése tiene una radio.
7. Aquél tiene una casa hermosa.
8. Este hombre tiene el taller ahí.
9. Ese joven tiene mala cara.
10. Aquel monte tiene poca hierba.
11. Esta calle no tiene luz.
12. Esa casa no tiene televisión.
13. Esas mujeres tienen mucho dinero.
14. Aquellos pueblos no tienen camino.



Itzulpena.

1. Los trabajadores tienen una reunión.
2. Los niños hoy no tienen escuela.
3. Nuestros amigos tienen buen vino.
4. Yo tengo un papel.
5. Tú tienes ordenador nuevo.
6. Tenemos la mesa sucia.
7. Vosotros tenéis fiesta.
8. Ahí tienes un buen sitio.
9. Tenéis un camino largo pero bonito.



Itzulpena.

1. -¿Tienes dinero?
-No, no tengo dinero.
2. -¿Tienes un cigarro?
-Sí, lo tengo.
3. -¿Tenéis pan?
-Nosotros no, pero ésos sí.
4. -¿Quién tiene un bolígrafo?
-Yo.
5. -¿Quién tiene el periódico?
-Éste.
6. -¿Qué tienes ahí?
-¿Aquí? Un papel.

Resumen de lo aprendido


Sujeto		NOR	NORK
pronombres personales		ni	nik
		zu	zuk
demostrativos		hau	honek
		hori	horrek
		hura	hark
nombre común	sing.	-A	-AK
	plur.	-AK	-EK
nombre propio	vocal	-	-K
	consonante	-	eK

Ni bilbotarra naiz; **nik** dirua dut.
 Zu donostiarra zara; **zuk** ez duzu dirurik.
 Hau Iñaki da; **honek** alaba du.
 Hori Itziar da; **horrek** semea du.
 Hura handia da; **hark** indarra du.
 Gizona txikia da; **gizonak** liburua du.
Gizonak txikiak dira; **gizonek** liburua dute.
 Koldo gaztea da; Koldok autoa du.
 Izaskun gaztea da; **Izaskunek** autoa du.


Escucha y repite el siguiente guión, luego cubre los textos y procura repetirlos de memoria con la ayuda de las viñetas.




ZER NAHI DUZU?



-Ba al duzu tabakorik?




-Ez. Baina hor badute. Joan eta erosil!



-Bai, baina dirurik ere ez dut...




-Zenbat balio du zigarro paketeak?




-Hiru euro nahikoa izango da.



-Tori, ba, eta ez agertu gehiago!




-Honek du aurpegia!



-Berriz hemen?



-Zer nahi duzu orain?



-Sua.

1. -¿Tienes tabaco? 2. -No. Pero ahí ya tienen. Vete y compra. 3. -Ya, pero tampoco tengo dinero. 4. -¿Cuánto vale el paquete de cigarros? 5. -Tres euros será(n) suficiente(s). 6. -Toma, pues, y ¡no aparezcas más! 7. -¡Este sí que tiene cara! 8. -¿Otra vez aquí? 9. -¿Qué quieres ahora? 10. -Fuego...

IRAKURGAIA

Pello eta Txomin lagun zaharrak dira. Lagunak dira, bai, baina nahiko diferenteak. Pello handia da eta indarra du; Txomin, ordea, txikia da eta indar gutxi du. Pellok ez du ilerik buruan; Txominek, berriz, ile luzea du. Pello gizon serioa da; Txomin, ordea, nahiko lotsagabea. Elkarrekin dira orain ere.

Txominek erre nahi du, baina ez du tabakorik.

–Kaixo, laguna! Ba al duzu zigarrorik? –galdetu dio Pellori.

Pellok ere ez du zigarrorik:

–Barkatu, Txomin –esan dio–, baina nik ere ez dut. Hor badute. Joan eta erosi.

Txominek ez du dirurik:

–Ezin dut erosi –esan du–, dirurik ere ez dut...

–Zenbat nahi duzu? –galdetu dio lagunak nahiko haserre.

–Hiru euro besterik ez. Nahikoa izango da. Zigarro paketeak ez du gehiago balio –erantzun dio besteak.

Pellok dirua eman dio Txomini eta honela esan dio:

–Tori, ba, dirua. Zigarroak erosi eta ez agertu hemen gehiago!

Txomin estankora joan da.

–Honek du aurpegia! –esan du Pellok.

Bi minutu pasatu dira eta hor da berriz gure gizona.

–Zer nahi duzu orain? –galdetu dio Pellok oso haserre.

–Sua... –erantzun dio Txominek.


Benetan aurpegi gogorra du Txominek!

ordea: en cambio • **lotsagabe:** sinvergüenza • **erre:** fumar • **galdetu dio:** le ha preguntado • **Pellori:** a Pello • **ezin dut:** no puedo • **haserre:** enfadado • **eman dio:** le ha dado • **Txomini:** a Txomin • **honela:** así • **ba:** pues • **pasatu dira:** han pasado • **gogor:** duro




Galderak.

1. Zein dira lagun zaharrak?
2. Zer dira Pello eta Txomin?
3. Nolakoa da Pello?
4. Txomin ere handia da?
5. Ile asko du Pellok buruan?
6. Nolako ilea du Txominek?
7. Gizon serioa da Txomin?
8. Zer nahi du Txominek?
9. Txominek ba al du tabakorik?
10. Non dute tabakoa?
11. Nork du dirua?
12. Nork eman dio dirua Txomini?
13. Zer eman dio Pellok Txomini?
14. Nora joan da Txomin?
15. Zenbat minutu pasatu dira?
16. Nor da hor berriz?
17. Zer nahi du Txominek orain?
18. Nolako aurpegia du Txominek?



GORPUTZA (el cuerpo humano)



Nola esaten da euskaraz...?

- | | |
|-------------|--------------------|
| 1. cuerpo | 14. corazón |
| 2. cabeza | 15. tripa, vientre |
| 3. pelo | 16. cintura |
| 4. cara | 17. espalda |
| 5. ojo | 18. culo, trasero |
| 6. oreja | 19. brazo |
| 7. nariz | 20. mano |
| 8. boca | 21. dedo |
| 9. labios | 22. pierna |
| 10. dientes | 23. rodilla |
| 11. lengua | 24. pie |
| 12. cuello | 25. dedos del pie |
| 13. pecho | |

SOLASALDIAK

Entzun eta errepikatu ondorengo elkarriketa hauek.
Escucha y repite los siguientes diálogos.



1 Dirua eskatzen



A: Ba al duzu txanponik?

B: Euro bat besterik ez.

A: Nahikoa dut horrekin. Makinan botatzeko da.

besterik ez: solamente • **horrekin:** con eso • **makinan botatzeko:** para echar en la máquina



2 Aurpegi txarra

A: Zer duzu, Iñaki? Aurpegi txarra duzu.

B: Buruko mina dut. Gripea da segur aski... Baduzu aspirina bat?

A: Ez. Ez dut aspirinarik. Sentitzen dut. Baina... begira! Hor duzu botika bat...

B: Egia da. Mila esker.

buruko min: dolor de cabeza • **segur aski:** seguramente • **sentitzen dut:** lo siento • **begira!:** ¡mira!
• **botika:** farmacia • **egia da!:** ¡es verdad!



3 Mina hankan

A: Zer moduz duzu hanka?

B: Hobeto.

A: Non duzu kolpea?

B: Hemen, belaunean.

A: Min handia duzu?

B: Ez. Pixka bat bakarrik.

A: Noiz duzu hurrengo partida?

B: Igandean...

hobeto: mejor • **kolpe:** golpe • **pixka bat bakarrik:** un poquito solamente • **noiz:** cuándo • **igandean:** el domingo



4 Nola duzu izena?



A: Egun on, andrea!

B: Baita zuri ere.

A: Nola duzu izena?

B: Lorea Arakistain.

A: Ederki. Baduzu lanik?

B: Bai, badut. Kazetaria naiz.

A: Oso ongi! Familia handia duzu?

B: Alaba bat dut. Lau urteko alaba bat.

A: Eta ba al duzu telefonorik?

B: Bai noski.

A: Zein da zenbakia?

B: 94148763.

lau urteko: de cuatro años

5

Itsusia baina aberatsa

A: Aizu! Nor da gizon hori?

B: Joxe Hirubide.

A: Bai gizon itsusia!

B: Itsusia? Zergatik itsusia?

A: Bada... Oso buru handia du, ilerik ez du, aurpegi tristea du, sudur okerra, ahoa hortzik gabe... Arropa ere zaharra eta zikina du. Oso itxura narrasa du.

B: Je, je! Itxura narrasa du, baina oso aberatsa da! Gizon horrek diru asko du!

A: A bai? Eta... nola du izena? Nola esan duzu...? Joxe... Dirubide?

B: Dirubide ez, neska! Joxe Hi-ru-bi-de.

zergatik?: ¿por qué? • **gabe:** sin • **oker:** torcido • **arropa:** ropa • **itxura narrasa:** aspecto desaliñado

6

Alfer halakoa!

A: Mikel, hasi lanean!

B: Lana? Uf! Ez dut gogorik... Tripako mina dut. Bihar egingo dut.

A: Alfer halakoa! Ez duzu lotsarik!

hasi lanean!: ¡empieza a trabajar! • **astelehena:** lunes • **gogo:** gana(s) • **bihar egingo dut (lana):** mañana trabajaré • **alfer halakoa!:** ¡vago más que vago! • **lotsa:** vergüenza

7

Lan handia

A: Lutxi, etorri pixka bat.

B: Barkatu, baina orain ezin dut. Lan handia dut.

A: Bale, ba. Gero arte orduan!

B: Gero arte, bai.

ezin dut: no puedo • **lan handia:** mucho trabajo • **gero arte orduan:** entonces hasta luego